

HIRI HEZITZAI LEEN KARTA



ASOCIACIÓN
INTERNACIONAL DE
**Ciudades
Educadoras**

HIRI HEZITZAI LEEN KARTA

**HIRI HEZITZAILEEN
NAZIOARTEKO
ELKARTEA (AICE)**
www.edcities.org

ARGITALPENAREN ©: AICE

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
www.wayava.net



Aitortu - Ez komertziala - Lan eratorririk gabea



ASOCIACIÓN
INTERNACIONAL DE
**Ciudades
Educadoras**

**Ajuntament
de Barcelona**

Bartzelonan, 1990ean, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko I. Biltzarrean ordezkaturak zeuden udalerriek hasierako Gutunean jaso zituzten hiriko hezkuntza sustatzeko oinarriko printzipioak. Sinetsita zeuden haien biztanleen garapena ezin zela halabeharrenden esku utzi.

Gutuna berrikusi zuten Nazioarteko III. Biltzarrean (Bologna, 1994), VIII. Biltzarrean (Genova, 2004) eta 2020ean, planteamenduak erronka berrietara eta gizarte beharretara egokitzeko.

Gutun honek oinarri ditu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948); Arrazarengatik Diskriminazio-mota guztiak Ezabatzeko Nazioarteko Hitzarmena (1965); Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966); Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (1989); Guztiondako Hezkuntzari buruzko Mundu Adierazpena (1990); Beijingen egin zen Emakumeei buruzko Munduko IV. Biltzarra (1995); Kultura Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (2001); Hirian Bizitzeko Eskubidearen aldeko Mundu Gutuna (2005); Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa (2006); Pariseko Klimari buruzko Akordioa (2015) eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (2015).

TARIKOA

ATARIKOA



Gaur inoiz baino gehiago, hiriak zein herriak, handiak zein txikiak, aukera hezitzaile zenbatezinak ditu, baina udalerrian indar eta inertzia deshezitzaileek ere eragin dezakete. Modu batera edo bestera, hiriak osoko prestakuntzarako elementu garrantzitsuak ditu: sistema konplexua da, eta aldi berean, hezkuntza-eragile iraunkorra, plurala eta poliedrikoa, hezkuntzarako eta eraldaketa sozialerako faktoreak sustatzeko gai dena.

Hiri hezitzailean hezkuntza eskolako hornez haratago doa, eta hiri osoan eragina du. Hiri-hezkuntza da, non administrazioek bere gain hartzen baitute hezi eta hiria eraldatzeko ardura, bizitza eta aniztasuna errespetatzen dituen espazioan.

**Hirian hezkuntza eskolako
hornez haratago doa, eta hiri
osoa eragina du.**

Hiri hezitzailea etengabeko prozesuan bizi da, xede duena komunitatea eraikitzea eta herritar libreak, arduratsuak eta solidarioak sortzea, gai direnak desberdintasunarekin elkarbizitzeko, gatazkak era baketsuan konpontzeko eta “ondasun komunaren” alde lan egiteko.

Gizateriak gaur egun aurrean dituen erronkez kontziente diren herritarrak, bizi dugun une historikoak eskatzen dituen konponbideak bilatzeko erantzunkide izatea ahalbidetzen dieten ezagutza eta gaitasunekin.

Hiri hezitzaileak nortasun propioa du, zein herrialdetan egon eta bertan txertatua dagoena. Bere nortasuna, beraz, zein lurralderen parte izan eta horrekiko interdependentea da. Bada, baita ere, ingurunearekin harremanetan dagoen hiria, lurraldeko beste hiriguneekin, inguratzen duten landa-inguruneekin eta beste herrialde batzuetako hiriekin. Ikastea, berritzea, partekatzea eta, horrenbestez, bertako biztanleen bizitza aberastea eta seguruagoa eta duinagoa egitea izanen da bere helburu iraunkorra.

Hiri hezitzaileak tradizionalak diren zereginekin batera (ekonomikoa, soziala, politikoa eta zerbitzuak ematekoa) gauzatu eta garatu beharko du zeregin hezitzailea, begirada edozein adinetako pertsona guztien prestakuntzan, sustapenean eta garapenean jarrita, haien prestakuntza-beharrei erantzuna emateko bizitzaren une eta alderdi orotan.

Hezkuntza haurtzaroan hasten da, baina ez da inoiz amaitzen, eta ez da lan-esparruko edo arlo profesionaleko trebakuntzara murrizten. Bizitza osoan zehar kontzientziak mugiarazten saiatzen den hezkuntza da, askatasuna eta erantzukizuna uztartzeko: pertsonen arteko eta naturarekiko interdependentzia zentzua esnatzen du, hirian eta planetan bizitzeko modu gisa; hausnarketa, pentsamendu kritikoa eta arazo konplexuak ulertzeko gaitasuna sustatzen du; politikak diseinatu eta gauzatzean partaidetza erantzunkidera animatzen du, eta lurraldearen suntsipena eta pertsonen arteko desberdinkeria berekin ekartzen ez duten bizitzeko moduak imajinatu eta sustatzen ditu.

Zeregin hezitzaile hori justifikatzen duten zioak sozialak, ekonomikoak eta politikoak dira; batez ere, kultura eta hezkuntzako proiektu batera bideratuak, proiektu eraginkorra eta bizikidetzakoa. Hona hemen XXI. mendeko erronka handiak: lehenik eta behin, hezkuntzan “inbertitzea”, pertsona bakoitzarengan, halako moduan non pertsonak gero eta gaitasun handiagoa izanen baitu norbere giza-ahalmenaren inguruan hausnartzeko, hura adierazi, berretsi eta garatzeko, bakoitzaren berezitasun, sormen eta ardurarekin bat.

Bigarrenik, erabateko berdintasuneko baldintzak sustatzea, pertsona oro errespetatua sentitu eta begirunetsua izan dadin, elkarriketarako eta entzute aktiborako gaitasunekin.

Hirugarrenik, ahal diren faktore guztiak elkarzea benetako ezagutza-gizartea eraiki ahal izateko, bazterkeriarik gabe, hiriz hiri, herriz herri.

Eta laugarrenik, komunitate-kontzientzia eta gaitasunak ikastea eta garatzea, berdintasunean eta justizian oinarritutako elkarbizitza antolatzeke.

Komunitate-kontzientzia eta gaitasunak ikastea eta garatzea, berdintasunean eta justizian oinarritutako elkarbizitza antolatzeke.

Hiri hezitzaileak, hezkuntza formaleko instituzioekin eta esku-hartze ez-formalekin (hezteko nahia dutenak hezkuntza araututik kanpo) eta informalekin (nahi gabekoak eta planifikatu gabekoak), elkarlanean arituko dira, biren edo gehiagoren artean, esperientziak partekatzea gauzatzeke.

Lankidetzaren espirituaz, ikerketa- eta inbertsio-proiektuetan babes emanen diote elkarri, bai lankidetzaren zuzenaren bidez, bai nazioarteko erakundeekin elkarlanean.

Haur, nerabe eta gazteen eskubideak hirian bermatzea honakoan datza: lehenenik eta behin, erabat bermatzea beren bizitzaren protagonista direla eta beren eskubide zibil eta politikoak garatzen dituztela; komunitatearen bizitzarekin engaiatzeko

aukera ere izan behar dute, horretarako ordezkatuak izateko eta parte hartzeko kalitatezko mekanismoak baliatuta, heldu eta nagusiekin batera, belaunaldien arteko bizikidetzaz sustatuz.

Gizateria ez da aldaketa garai soil bat bizitzen ari, benetako etapa aldaketa baizik, baita paradigma aldaketa ere. Pertsonak prestatu behar dira une politiko, sozial, ekonomiko eta ekologikoa ulertzeko eta libreki aukeratu ahal izateko nola bizi nahi duten.

Orainaren edo “unearen” kulturari aurre egiteko gaitasunak garatu behar dituzte, tokian-tokitik munduaren konplexutasunean esku hartzeko, eta haien autonomia eta espiritu kritikoa mantentzeko gainezka egin eta boteregune ekonomiko zein politikoez kontrolatzen duten informazioaren aurrean.

Herritartasun globala taxutzen ari da, oraindik espazio global demokratiko bat egon ez arren, herrialde askok erdietsi ez arren efektiboa eta aldi berean beren gizarte- eta kultura-ereduekin begirunetsua den demokrazia, eta tradizio handieneko demokraziak ase sentitu ahal izan ez arren haien sistemen kalitatearekin.

Bestalde, XX. mendetik XXI. menderako trantsizioan superpotentzien artean izandako nolabaiteko orekaren ondoren, tentsio berriak azaleratu dira nazioartean. Krisi ekosozial sakonaren baitan gertatzen da hori guztia, zeinak gizateriaren zati handi baten bizitza arriskuan jartzen baitu, honako ezaugarri hauekin bat: ekonomiari eusteko oinarritzko baliabide mineralen gainbehera, klima-aldaketa, mehatxu pandemikoak eta biodibertsitatearen galera. Eta horiek guztiek, zientzia-komunitateak adierazi bezala, gizartearen eta ekonomiaren aldaketa sakonari eragiten diote.

Hiriko metabolismoak dira klima-aldaketa globalari gehien laguntzen dioten faktoreetako bat, kontuan hartuta munduko biztanleen erdiak baino gehiago hiriguneetan bizi direla. Aldi berean, hiriak, haien lurralde eta biztanleekin, zaurgarriak dira askotariko dimentsioak aintzat hartuta.

Klima-aldaketaren ondorioek, elikadura- zein energia-menpekotasunak, kontsumismo neurrigabeak eta kutsadurak bertan bizi diren pertsona eta beste izaki bizidunendako bizi-baldintza duinak bermatzeko eraldaketa garrantzitsuak behar dituzten leku bihurtzen dituzte hiriak.

(...) herrialde guztietako udalerriek, tokiko dimentsiotik, jokatu behar dute osoko herritartasun demokratikoaren esperimantazio- eta sendotze-plataforma gisa.

Mota orotako desberdintasun sakonek zeharkatzen dituzten eszenatokiak ere badira.

Egun, ziurgabetasun-sentimendua areagotzen ari da herrialde gehienetako herritarren artean, horrek berekin dakarren deriba populisten arriskuarekin, zeinek are zailago egiten baitute bizitza, konfiantza demokratikoa eta munduko bakea. Sortzen diren ezinegon eta beldurren aurrean, eslogan sinplistik eta errudunen bilaketa irrazionalak populazioaren zati bat erakar dezakete, horrek berekin dakartzan erradikalizatzeko eta istilu biolentoak egoteko arriskuarekin

Inoiz baino premiazkoagoa da balioetan eta giza eskubideetan hezte, zentzua eman, bizigarri izan eta bide-orri demokratikoa marrazten baitute.

Testuinguru horretan, herrialde guztietako udalerriek, tokiko dimentsiotik, jokatu behar dute osoko herritartasun demokratikoaren esperimendazio- eta sendotze-plataforma gisa, bizikidetza baketsuaren sustatzaile izan behar dute, prestakuntza emanez balio etiko eta zibikoetan, demokratikoki gobernatzeko izan daitezkeen modu desberdinen aniztasuna errespetatuz eta kalitatezko ordezkari- eta partaidetza-mekanismoak suspertuz. Inoiz baino premiazkoagoa da balioetan eta giza eskubideetan hezte, aukera ematen baitigute zentzua eman, bizigarri izan, bide-orri demokratikoa marraztu eta lasaitasunez bizitzeko.

Hiri hezitzaileak inklusioaren idealaren eramaile sentitzen dira, pertsona bakoitzari hura den moduan harrera egin eta Hiriaren proiektu komunean parte hartzeko gonbit egiten diote.

Dibertsitatea bizitzari datzekio, eta zalantzarik gabe, egungo hiriei ere, eta etorkizunean are gehiago haztea aurreikusten da. Horrexegatik, hiri hezitzaileen erronketako bat da oreka eta harmonia sustatzea nortasunaren eta dibertsitatearen artean, kontuan hartuta osatzen duten komunitateen ekarpenak eta bertan elkarrekin bizi diren guztiak haien nortasun kulturaletik abiatuta aintzatzetsiak sentitzeko duten eskubidea; horrek arrazismoaren eta bazterkeria mota ororen kontra borrokatzea eskatzen du.

Egungo erronka da berezitasunak izateko eskubidea aintzatestea, komuna den horren eraikuntza arriskuan jarri gabe.

Hiri hezitzaileak ere hezkidetzak-hiriak eraikitzen bideratuko du bere jarduna; horretarako, genero desberdinkeria sortzen duen egitura soziala eraldatu, haren jatorria aztertu eta ondorioei aurre eginen die, indarkeriari eta gizarte bazterkeriaren feminizazioari, kasu.

Ziurgabetasunezko mundu batean bizi gara, zeinak segurtasuna bilatzea lehenesten baitu, eta hori sarritan bestearen ukazio eta elkarrekiko mesfidantzaren bidez adierazten da. Hiri hezitzaileak, horren jakitun, ez du aldebakarreko konponbide sinplerik bilatzen; kontraesana onartzen du, eta ezagutza-, elkarriketa- eta partaidetza-prozesuak proposatzen ditu, ziurgabetasunean eta ziurgabetasunarekin batera bizitzeko bide egoki gisa. Politikan, komunikabideetan eta sare sozialetan “egia-oste” ugari dituen mundu batean, hizkuntza eta pentsamendu kritikoa lantzea gero eta garrantzitsuagoa da herritarrek exisititzen diren estereotipo estigmatizatzaileak erraztasunez onar ez ditzaten.

Gizon-emakumeak interdependenteak gara. Zaintzarik gabe ezin gara bizi. Bizitzan zehar, gizakiok zaintzak jasotzeko beharra dugu, eta gure biziraupena eta ongizate fisikoa zein psikikoa horien menpe daude, batez ere bizi-zikloko une batzuetan, hala nola lehen haurtzaroan, zahartzaro aurreratuan edo gaixotasun larriak ditugunean, bai eta dibertsitate funtzionala dutenen kasuan ere.

Hiri hezitzaileak zaintza aintzatsi, sustatu eta suspertu behar du, eta horren erantzunkide egin gizartea oro har.

**Hiri hezitzailean bizitzeko
eskubidea hezkuntza jasotzeko
eskubidearen luzapen gisa finkatu
behar da.**

Adierazitako erronka eta behar guztiei erantzuteko, hiri hezitzailean bizitzeko eskubidea hezkuntza jasotzeko eskubidearen luzapen gisa finkatu behar da. Hiri hezitzailean bizitzeko eskubideak honako printzipio hauen berme esanguratsua izan behar du: pertsona guztien arteko berdintasuna, justizia soziala zein globala, lurralde oreka eta behar den jasangarritasuna eta erresilientzia.

Horrek tokiko gobernuen erantzukizuna areagotzen du, hiriak dituen hezkuntza-gaitasun guztiak garatu behar baititu, hiri hezitzailearen printzipioak bere proiektu politikokoan txertatuz.

PRINTZIPIOAK

HIRI HEZITZAILERAKO ESKUBIDEA

- Hezkuntza inklusiboa bizitzan zehar
- Hezkuntza politika zabala
- Aniztasuna eta diskriminaziorik eza
- Kulturara iristea
- Belaunaldien arteko elkarriketa

HIRIAREN KONPROMISOA

- Lurraldea ezagutzea
- Informaziora iristea
- Herritarren gobernantza eta partaidetza
- Jarraipena eta etengabeko hobekuntza
- Hiriaren nortasuna
- Espazio publiko bizigarria
- Udalaren ekipamenduak eta zerbitzuak egokitzea
- Jasangarritasuna

PERTSONEI ZERBITZU OSOA EMATEA

- Osasunaren sustapena
- Hezkuntza-eragileen prestakuntza
- Lan-orientazio eta laneratze inklusiboa
- Gizarte-inklusioa eta -kohesioa
- Erantzukidetasuna desberdinkerien kontra
- Elkartegintzaren eta boluntariotzaren sustapena
- Herritartasun demokratiko eta globalerako hezkuntza



Hezkuntza inklusiboa bizitzan zehar

Hiri hezitzaileako eskubidea pertsona orok duen hezkuntzarako oinarritzko

eskubidearen luzapen gisa proposatzen da.

Hirian bizi diren pertsona guztiek eskubidea izanen dute hiriak eskaintzen dituen prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonaleko baliabide eta aukera guztiez gozatzeko, askatasunez eta berdintasunean.

Hiri hezitzaileak etengabe berritzen du bere biztanleen prestakuntzarekiko konpromisoa bizitzan zehar, askotariko alderdiez bezainbatean.

Eta hori posible izan dadin, talde guztiak aintzat hartu beharko ditu, beren behar partikularrekin.



Hiriaren gobernuak eta administrazioak berdintasunerako eta baztertua ez izateko eskubideak kaltetzen dituzten edozein motatako oztupoak kentzera bideratutako politikak inplementatuko dituzte.

Horren ardura udal-administrazioarena zein hirian eragina duten beste administrazioena izanen da; eta zeregin horretan herritarrak ere engaiatuta egonen dira, bai maila pertsonalean bai herritarrak antolatzeako elkarte mota askotarikoetan.

Hezkuntza politika zabala

Udalek hezkuntza arloan dagozkien

eskumenak eraginkortasunez gauzatu dituzte.



Eskumen horien irismena edozein dela ere, hezkuntza politika zabala planteatu beharko dute, berritzailea eta zeharkakoa, bertan sartuta hezkuntza formaleko, ez-formaleko eta informaleko modalitate guztiak eta haien etengabeko elkarrekintza hirian eta auzo bakoitzean gertatzen diren kultur adierazpenekin, informazio-iturriekin eta errealitatea ezagutzeko bideekin.

Udalaren politikak hezkuntzaz bezainbatean beti ulertuko dira testuinguru zabalago bati dagokionez, zeina inspiratuta baitago honako printzipio hauetan: justizia soziala, berdintasuna, gizabide demokratikoa, jasangarritasuna, bizi-kalitatea eta biztanleen sustapena.

Aniztasuna eta diskriminaziorik eza

Hiriak aniztasunean heztea sustatuko du honako hauek lortzeko: ulermena, nazioarteko lankidetzaren solidarioa, herri indigenen eta diskriminazioa pairatzen duten beste etnia batzuen errespetua eta aitortzea, eta bakea munduan.

Hezkuntzak diskriminazio mota orori aurre egingen dio. Lagunduko ditu adierazpen-eta kultu-askatasuna, kultur aniztasuna, elkarrizketa eta entzute aktiboa, berdintasunean. Xede horiekin bat datozen ekimen guztiak barne hartuko ditu, haien jatorria edozein dela ere. Klase soziala, jatorria, etnia, generoa, adina, sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala edo beste edozein zio eragindako desberdinkeriak zuzentzen lagunduko du.

Aldi berean, hirian dauden hizkuntzak baloratzea, ezagutzea, ikastea eta erabiltzea sustatuko du, herritarren arteko kohesio- eta integrazio-elementu gisara.

Kulturara iristea

Hiri hezitzaileak guztien kulturarako eta partaidetzarako eskubidea sustatuko du, bereziki zaugarritasun egoera handiagoan dauden kolektibo horiena, hiriko bizitza kulturean parte har dezaten, gizarteratzeko, kidetasun-sentimendua sustatzeko eta bizikidetzaren onerako bide gisa.

Ondasun kulturelez gozatzeaz gain, kultur partaidetza honek barne hartuko ditu herritar orok kultura bizi eta aldakorari egin diezaiokkeen ekarpena, eta herritarren engeiamendua kultur ekipamenduen eta ekimenen kudeaketan.

Halaber, hiri hezitzaileak arte-hezkuntza, sormena eta berrikuntza suspertuko ditu, eta kultur ekimenak sustatu eta babestuko ditu, bai abangoardiakoak bai kultura herrikoikoak, norbanakoak, gizartea, kultura eta ekonomia garatzeko bide gisa.

Belaunaldien arteko elkarrizketa

Hiri hezitzaileak belaunaldien arteko gertutasuna eta lankidetzaren sustatuko ditu, eta adinkeriari aurre egingen dio, bizikidetzaren baketsurako formula gisa ez


ezik, adin desberdinetako taldeen arteko proiektu komunak eta partekatuak bilatzeko modu gisa ere.

Proiektu horiek gizabidezko ekimenak eta ekintzak egitera bideratuta egon beharko lukete. Eta haien balioa, hain zuzen, belaunaldien arteko izaera hori litzateke, eta adin bakoitzak berezko dituen gaitasunak, bizipenak eta balioak aprobeztatzea.



Lurraldea ezagutzea

Hiri hezitzaileak onartzen du errealitatean oinarritutako erabaki politikoek erantzun egokiagoak ematea ahalbidetzen dutela. Horregatik, tokiko gobernuek biztanleen eta lurraldeen egoera eta baldintzei buruzko informazio zehatza izan beharko dute. Horretarako, ikerketak egin edo babestu beharko dituzte, eta horiek eguneratuta eta herritarren eskura izan.



Proiektuak eta politikak formulatzean kontuan hartu beharko da modu formal eta esplizituan nolako inpaktu hezitzailea duten, eta pertonekin zein taldeekin komunikatzeko bide irekiak eta iraunkorrak ziurtatu beharko dituzte.

Informaziora iristea

Udalerriak informazio nahikoa eta ulerkorra bermatu beharko du, eta herritarrengan informatzeko nahia sustatu.

Hiri hezitzaileak, egun eskura dagoen informazio emari handia hautatu, ulertu eta lantzeak duen balioa kontuan hartuta, baliabideak jarriko ditu denon eskura, eta konektibitatea bermatuko du hiriko eremu eta toki guztietan.

Hiri hezitzaileak informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko prestakuntza-programak ezarriko ditu adin eta gizarte-talde guztientzat, xede hartuta eskaintzen dituzten aukerak baliatzea, inor ez atzean uztea eta eten digitalari aurre egitea.

Halaber, pertsona guztien zientziarako eta ikerkuntzarako gaitasun eta abileziak sustatuko ditu, batez ere haur eta gazteen artean, errealitatearen begirada kritikoa eta objektiboa indartzeko helburuarekin.

Udalerriak laguntza berezia behar duten kolektiboei arreta emanen die, eta haien eskura jarriko ditu informazio-, orientazio- eta laguntza-puntu espezializatuak. Kontrolerako izan daitezkeen tresnen aurrean, hala nola inteligentzia artifiziale eta Big Data delakoak, pribatutasunaren, intimitatearen eta autonomiaren errespetua bermatzeaz arduratuko da.

Herritarren gobernantza eta partaidetza

Hiri hezitzailea gobernantza-paradigma batetik abiatuta eraikiko da, non administrazio publikoak eta herritarrak elkarlanean arituko baitira hura diseinatu eta aurrera egin dezan. Elkarlan hori, hain zuzen, hiri hezitzailearen berariazko ezaugarria da.

Udalaren kudeaketan zein bizitza komunitarioan herritarren partaidetza sustatuko du ikuspegi kritiko, eraikitzaile eta erantzunkidean oinarrituta, eta erabakiak hartzeko prozesuak herritarrei irekiko dizkie. Kontuan hartu beharko ditu instituzio eta erakunde zibil zein sozialak, eta aintzat hartu ekimen pribatuak eta parte hartzeko bat-bateko beste modu batzuk.

Horretarako, tokiko gobernua, aurrez, beharrezkoa den informazioa emanen du, eta zeharkakotasunetik abiatuta, haurtzarotik prestakuntzarako orientazioak eta jarduerak sustatuko ditu.

Parte hartzeko prozesu bat amaitzean, emaitzen berri emanen da publikoki, eta jarraitutako prozeduraren eraginkortasuna eta mugak aztertuko dira.

Haur, nerabe eta gazteei orainaldiko herritartasun titulua aitortuko zaie, komunitateko bizitzaren kudeaketan eta hobekuntzan parte hartzeko eskubidearekin, helduen baldintza berberetan, eta horretarako beharrezkoak diren bideak eta tresnak emanen zaizkie.

Jarraipena eta etengabeko hobekuntza

Udalak hezkuntza, gizarte eta ekologiaren arloetan udal-politikek duten eragina ebaluatuko du, etengabe hobetzeko.

Hiriko hezkuntza-proiektua, sustatzen dituen balioak, eskaintzen duen bizi-kalitatea, antolatzen dituen ospakizunak eta prestatzen dituen edozein motatako kanpainak eta proiektuak hausnartu eta ebaluatu egingen dira. Horretarako, politiken koherentzia bermatzeko beharrezkoak diren tresnak erabiliko dira, banakakoek zein kolektiboek garapena sustatzen laguntze aldera.



Hiriaren nortasuna

Hiriak bere nortasun propio, konplexu eta aldakorra aurkitzen, babesten eta aurkezten jakin behar du, baita balioan jartzen ere berezi egiten duen ondare ukigarri zein ukiezina eta memoria historikoa.

Hori da ingurunearekin zein munduarekin elkarriketa emankorra izateko oinarria.



Ohituren eta jatorrien balorazioak giza eskubideekin bateragarria izan behar du. Aldi berean, irudi erakargarria eskainiko du, natura- zein gizarte-ingurunea hutsaldu gabe, eta bertako biztanleen artean kidetasun-sentimendua eta ardura partekatua sustatuko ditu.

Espazio publiko bizigarria



Espazio publikoaren antolamenduak erantzuna emanen die irisgarritasun-, zaintza-, osasun-, topaketa-, segurtasun-, jolas- eta aisialdi-beharrei, baita bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteari ere.

Hiri hezitzaileak, hirigintzaren, ekipamenduen eta zerbitzuen plangintza egiten duenean, bereziki zainduko ditu haurren beharrak, dibertsitate funtzionaleko pertsonak eta adinekoak xede hartuta haiei ingurune atsegin eta begirunetsua eskaintzea, bertan ahalik eta autonomia handienarekin molda daitezten.

Aldi berean, zainduko du hirigintzak genero-ikuspegia izan dezala Askotariko ikuspuntu horiek hiriko espazioa herritar guztien zerbitzura egotea bermatuko dute.

Hiri hezitzaileek aire zabalean jolastokiak eta kirol-esparruak paratzea sustatuko dute, hartara naturarekin kontaktua ahalbidetzeko eta harreman sozialak sustatzeko.

Hiria eraldatzean harmonia gailendu beharko da; behar berrien zein jasangarritasunaren eta hiriaren iraganaren eta existentziaren erreferente argi diren eraikin zein sinboloen betiketzaeren arteko harmonia, alegia. Hiriak espazio publikoan bizikidetzeta eta komunitatea integratzea sustatuko du, hala eraikitako espazio publikoan nola naturalean, eta ghettoak sortzea saihestuko du beti.

Halaber, hiriak zainduko du bertako biztanleak edertasuna ezagutzeko aukera emanen dieten inguruneetan bizitzea. Horretarako, irizpide estetikoak eta ingurumenekoak txertatuko ditu proiektu guztietan, eta artistak engaiatuko ditu espazio publikoak antolatzeke eta diseinatzeke.



Udalaren ekipamenduak eta zerbitzuak egokitzea

Udal-gobernuak espazio, ekipamendu eta zerbitzu publikoak sortu eta haiek mantentzea ziurtatu beharko du, biztanle guztien garapenerako eta ongizate pertsonal, sozial, moral eta kulturalerako egokiak izan daitezten; halaber, haurrei, nerabeei eta gazteei arreta emateko berariazko prestakuntza duten profesionalen hornitu beharko ditu, baita adinekoei eta dibertsitate funtzionalekoei arreta emateko ere.



Jasangarritasuna

Hiri hezitzaileak bizitza duina izatea ahalbidetzen duten beharrak –elikadura, ura, etxebizitza, saneamendua, energia, mugikortasuna, ingurune segurua eta osasungarria– asetzeko konpromisoa hartuko du. .

Hiria antolatuko da aintzat hartuta giza bizitzaren izaera ekodependentea eta planetaren muga fisikoak.

Biztanle guztien partaidetza eta erantzunkidetasuna aktiboki sustatuko dira bizimodu eta kontsumo bidezkoak, erresilienteak eta jasangarriak har ditzaten, nahikotasunaren, banaketaren eta justiziaren printzipioekin bat; eta neurriak hartuko dira ondasun komunak babesteko, horiei esker bermatu baitaiteke biziraupen duina egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat.

LIAREN KONPRMISOA

Osasunaren sustapena

Hiri hezitzaileak pertsona ororen hazkuntza osoa eta osasungarria zaindu eta haien ongizate fisikoa, emozionala eta psikikoa sustatuko ditu.

Horretarako, osasun-arreta unibertsala sustatuko du, eta ingurune eta bizimodu osasungarriak babestuko ditu.

Osasunaren sustapenaren barruan sartuko dira jarduera fisikoa eta hezkuntza emozionala, afektibo-sexuala, elikadura-hezkuntza eta adikzioen prebentzioa. Halaber, hiria pertsona ororen zaintzarako gune gisa eraikitzea sustatuko da, eta lagunduko dira zaharkitze aktiboa eta bakardadeari nahiz isolamenduari aurre egiten dieten harreman sozialak.

Hezkuntza-eragileen prestakuntza

Hiriak ahaleginak egingen ditu familiek prestakuntza jaso dezaten. Prestakuntzari esker gurasoek seme-alaben hazkuntza lagunduko dute, hiria ezagutzeko babes-beharraren eta autonomiaren arteko oreka zainduko dute, betiere begirunez eta konfiantzaz.

Ildo horretan, hiriak prestakuntza-proposamenak egingen ditu profesionalentzat eta askotan horretaz jabetu ez arren hezkuntza-lanak egiten dituztenentzat. Zuzenean Udalaren menpe dauden Segurtasun kidegoak eta Babes Zibilekoak proposamen horiekin bat jarduteaz ere arduratuko da.

Lan-orientazio eta laneratze inklusiboa

Hiriak biztanleei gizartean toki bat betetzen dutela ikusarazi beharko die;



behar dituzten aholkuak emanen dizkie orientazio pertsonalaz eta bokazioaz bezainbatean, eta ekintzaitza sustatuko du.

Genero estereotiporik gabeko ikasketa- eta lanbide-eskaintzaren alde lan egingen dute hiriek.

Hezkuntzaren eta lanaren arteko harremanen berariazko arloan, lortu beharko da hezkuntza-plangintzaren, lan-merkatuaren eta komunitatearen beharren arteko harremana estua izatea.

Horri dagokionez, hiriek prestakuntza-estrategiak definituko dituzte, formalak zein ez-formalak, bizitza osoan zehar egitekoak eta laguntza ematekoak desberdinkeria zein bazterkeria egoeran dauden kolektiboek, edo ekonomia ez-formalean dihardutenei, haien bizi-kalitatea hobetzeko aukera izan dezaten. Hori horrela, erakunde sindikalak eta enpresak elkarlanean arituko dira haien gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko lanpostuak sortze aldera

Gizarte-inklusioa eta -kohesioa

Hiriek eskubideak urratzeko, baztertzeko eta marjinezeko dituzten mekanismoen kontrako politikak garatu beharko dituzte.



Bereziki, arreta emanen diete heldu berriei, migratzaileei edo errefuxiatuei, eskubidea baitute hala herrialdez herrialde mugitzeko nola zein hiritara heldu eta hura propiostat askatasunez sentitzeko, bai eta haien interesak, berariazko beharrak, ezagutzak eta gaitasunak aintzat hartuak izateko ere, sozialki baloratzen den egiteko bat izate aldera. Ahaleginak egingen dituzte auzoen eta mota guztietako biztanleen arteko gizarte-kohesioa sustatzeko.

Halaber, eta helburu horrekin berarekin, estigmatizazioa eta marjinezioa jasaten duten tokiko kolektiboekin lan egingen da.

Hiri hezitzailea engaiatuta egonen da indarkeria eta jazarpen mota oro errotik kentzearekin, eta arreta berezia jarriko die genero-indarkeriei, sexu-identitateak zein orientazioak, jatorriak eta etniak, adinak, itxura fisikoak eta abarrek eragindakoei.

Erantzunkidetasuna desberdinkerien kontra

Desberdinkeriei aurre egitera bideratutako esku-hartzeek askotariko formak izan ditzakete, baina pertsonen eskubideei eta interesen inguruko ikuspegi global batetik abiatu beharko dira.

Arlo honetan egiten den edozein esku-hartze adierazgarrik bermatu beharko ditu inplikaturako administrazioen eta haien zerbitzuen arteko erantzunkidetasuna eta koordinazioa, tokiko administrazioak beharrei eta lurraldeari buruz duen ezagutza hobe abiapuntu hartuta.



Desberdinkerien kontrako borrokan sustatuko da, baita ere, administrazioak eta gizarte zibil antolatua, GKEak eta irabazi-asmorik gabeko entitateak elkarrekin lanean aritzea, baita enpresa-ehuna eta beste ekimen pribatu batzuk ere.

Elkartegintzaren eta boluntariotzaren sustapena



Hiriak elkartegintza kolaboratiboa eta boluntariotza suspertuko ditu partaidetzako eta gizabidezko erantzunkidetasun bide gisa, komunitatearen zerbitzura dauden jarduerak bideratze aldera eta herritarren garapen osorako informazioa, materialak eta ideiak eskuratu eta hedatze aldera.

Helburu horri jarraiki, hiri hezitzaileek babesa emanen diete elkarte-ekimenei hainbat arlotan: kultura, kirola, elkartasuna, ezagutzen trukea, etab. giza-eskubideen eta balio demokratikoen errespetuarekin bat.

Era berean, prestakuntza emanen dute elkarte bizitzak berekin dakartzan erabakiak kolektiboki hartzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko prozesuak eraginkorragoak izan daitezen.

Herritartasun demokratiko eta globalerako hezkuntza

Hiri hezitzaileak prestakuntza eskaini beharko die herritar guztiei, prestakuntza zertan eta herritartasun demokratikoen balioetan eta praktiketan, horiek sustatu ditzaten errespetua, tolerantzia, partaidetza, ardura, publikoa denarekiko interesa eta guztion onurarekiko konpromisoa.

Horrez gain, hiri hezitzaileak kontzientziatuko du munduko erronkek dakarten arlo lokalaren eta globalaren arteko interdependentziaz, eta herritar globalei prestakuntza emanen die, tokian-tokian eta nazioartean parte hartzeko, engaiatzeko eta laguntzeko gai izan daitezen.



Hori guztiari etagainerako printzipioei esker, pertsona bakoitzak hiria, ingurunea eta planeta bereak balira bezala sentituko ditu.

www.edcities.org